




Etxebizitzaren
Gida Plana
Plan Director
de Vivienda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

2021-2023 ETXEBIZITZA GIDA PLANAREN ERAIKUNTZA PROZESUA



3/4 Dokumentua

PARTAIDETZA
MEMORIA

Aurkibidea

	Orrialdea
1. PROZESUAREN TESTUINGURUA	3
2. BURUTUTAKO PROZESU PARTE HARTZAILEAREN IKUSPEGI OROKORRA. PARTAIDETZA ADIERAZLEAK	7
3. JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN NAGUSIAK	14
3.1. ERAGILEEN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak	15
3.2. BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak	19
4. PROZESUAREN ERAGINA GIDA PLANEAN: IKUSPEGI OROKORRA	26
5. BALORAZIOA ETA ONDORIOAK	28
 ERANSKINAK	 30
1 eranskina. Eragile partaideen erlazioa	31
2 eranskina. Gida Planeko eragile eta adituen proposamen eta iritzien azterketa xehatua	37
3 eranskina. Gida Planeko biztanleriaren proposamen eta iritzien azterketa xehatua	49
4 eranskina. 2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz egindako inkestaren emaitzak: Biztanleria orokorra	59
5 eranskina. 2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz egindako inkestaren emaitzak: Etxebideko etxebizitza-eskatzailak	69
6 eranskina. 2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz egindako inkestaren emaitzak: Etxebizitza-birgaitzea	79
7 eranskina. Gazteekin online bidez egindako tailerrean jasotako ekarpenen laburpena	87
8 eranskina. Adinekoekin online bidez egindako tailerrean jasotako ekarpenen laburpena	93
9 eranskina. Elkartean-ekin egindako bileraren emaitzen laburpena - Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea	99


1

PROZESUAREN TESTUINGURUA

Testuingurua

Etxebizitza Sailburuordetzak urteak daramatza lanean biztanleriak etxebizitza politika publikoen diseinuan eta erantzukidetasunean parte har dezan. Jada hainbat Gida Plan garatu dira biztanleriaren lankidetzak eta sorkuntza oinarri egonkor batekin, eta, are gehiago, 2021-2023 Etxebizitza Gida Plan berri honetan. Plan berri honek, pandemiaren ondorioz sortutako testuinguru sozial eta ekonomikoari (ustekabekoa eta aldakorra) erantzuna ematea du helburu nagusia.

Horregatik, 2021-2023 Etxebizitza Gida Plana garatzeko orduan, ezinbestekoa izan da prozesu parte hartzailea eta kolaboratiboa sustatzea, denon artean elkarbanatutako konponbideak eta estrategia diseinatzeko eta datozen urteetako Euskadiko etxebizitza politiken gobernantza kolaboratiboa indartu eta hobetzeko.



Prozesu parte hartzailean, datozen urteetako Euskadiko etxebizitza politika zuzenduko duten bi dokumentuak martxan jarri dira, 2021-2023 Etxebizitza Gida Plana eta 2021-2036 Etxebizitzaren Aldeko Itun Soziala. Horretarako, Euskadik dituen erronken ikuspegi desberdinak aztertzeke asmoz, biztanleriaren, sektoreko adituen, eragile sozial eta ekonomikoen eta zenbait kolektiboren ikuspegia aztertu da. Kolektibo horien artean, gazteak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak edota pertsona nagusiak daude.

2021eko apirilaren eta maiatzaren artean garatutako prozesuan, hainbat lan bilera birtual antolatu dira sektoreko eragileekin, operadoreekin eta adituekin, diagnostikoaren eta testuinguruaren oinarriak, estrategia proposamenak, helburuak eta burutu beharreko ekintzak aztertu eta balioesteko. Horiek guztiak 2021-2023 Etxebizitza Gida Planean sorkuntzaren oinarri izan daitezzen. Zenbait arloren inguruko hausnarketa egin da eragileekin: alokairua, birgaitzea, eraikuntza sektorearen egoera, berrikuntza eta proiektu pilotuak (Next Generation Euskadi funtsak, Cohousing, zerga-pizgarrien eredu berriak, etab.). Hausnarketa arlo bakoitzerako, lantalde konkretu bat osatu da.

Adituen talde horiez gain, biztanleriak ere parte hartu du Etxebizitza (<https://etxebizitza.blog.euskadi.eus>) plataformaren bidez, iritzia emanez eta proposamenak aurkeztuz. Era berean, zenbait dinamika burutu dira kolektibo konkretuekin eta horri esker, haien beharrianen inguruko ikuspegia bistaratu da.


Etxebizitza Gida Plan prozesu parte hartzailearekin batera, Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozial berri bat garatzen hasi da, herrialde mailako elkartasun publiko-pribatua izango da, ingurune aldakorrari erantzuna emateko ezinbestekoak izango diren kooperazioa eta etxebizitzarekin lotutako epe ertain eta luzeko konpromisoak lortzeko elkartasuna.



2021 – 2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANA

Euskadiko etxebizitza-politikak bideratzeko gida programatiko gisa balio duen dokumentu estrategikoai.

- * **Xedea, ikuspegia eta balioak.**
- * **Printzipio** inspiratzaileak: Planaren ardatz estrategikoen identifikazioa.
- * **Helburuak eta ildo estrategikoak.** Ekintzak ildo estrategikoen arabera.
- * **Programazioa,** aurrekontu-kostuak eta jardueren finantzaketa. EGPren aurrekontua urterokoen arabera, eta guztizko aurrekontua.
- * **Parte hartzeko prozesua.** Ondorioak eta planaren onarpenak.
- * **Adierazleen eta helburuen** aginte-taula.
- * Planaren **jarraipen-** eta **ebaluazio-sistema,** adierazleekin eta horretarako egingo den aplikazioan islatuta.



ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2021 – 2036

Etorkizunean konfiantza emango duen esparrua, etxebizitza-politikaren aplikazioa bultzatu eta erraztuko duena, datozen 15 urteetarako adostutako akordio-sorta zabala oinarri hartuta.

“Testu paraleloa, etxebizitzaren arloan inplikaturako eragile publikoek, sozialek eta pribatuek beren arlo eta eskumenei buruz eta epe luzera adosteko dituzten konpromisoak jasotzen dituen.”

2

BURUTUTAKO PROZESU PARTE HARTZAILEAREN IKUSPEGI
OROKORRA. PARTE HARTZE ADIERAZLEAK

Burututako prozesu parte hartzailearen ikuspegi orokora

Etxebizitza Gida Plana garatzeko orduan, helburu nagusia ahalik eta parte hartze eta adostasun handiena lortzea izan da, horretarako, bai etxebizitza arloko eragile adituak eta baita kolektibo konkrituak eta biztanleria orokorrean kontuan hartu dira.

Parte hartze prozesuan zehar, oinarritzko irizpide diren adierazpen-askatasuna eta gardentasuna gailendu dira. Ez dira mugatu jasotako ekarpenak, iritzi guztiak onartu dira, errespetuz eta ikuspegi ideologikoa kontuan hartu gabekoak izan badira.

Uneoro bermatu da elebitasuna parte hartze prozesuan, beraz, pertsona guztiek izan dute haiek nahi izandako hizkuntzan mintzatzeko eskubidea.


Era berean, prozesua ahalik eta gardenena izatearen alde egin da, parte hartze prozesuari dagokion informazio garrantzitsu guztia Etxebizitza plataformaren bidez partekatuz.

Partaidetza lan-prozesu osoan zehar aintzat hartu da, hainbat parte hartze metodo edota tresna erabiliz. Tresna telematikoen alde egin da parte hartzea eta segurtasuna bermatzeko, COVID-19ak eragindako osasun larrialdia dela eta.

Baldintzatzaile hori izan arren, 2400 pertsona baino gehiagoren eta 74 eragileren iritzi eta proposamenak jaso dira, horrek prozesua aberastu du eta kolektibo desberdinen beharrian eta itxaropenen ikuspegi berri bat lortu da.



Ondorengo grafikoan 2021-2023 Etxebizitza Gida Plana osatzeko **partaidetza prozesuaren ikuspegi orokorra ikus daiteke:**



Prozesu parte hartzailea ondorengo **kanalen** bidez eta ondorengo **dokumentazioaren** laguntzarekin egituratu da:

BIZTANLERIAREN partaidetza



EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

- ❑ 1 lantaldearen koadernoa: Birgaitzea
- ❑ 2 lantaldearen koadernoa: Etxebizitza eta alokairua
- ❑ 3 lantaldearen koadernoa: Eraikuntza sektorea

KANALAK

- ❑ Inkestak online eta telefono bidez
- ❑ 1 Focus Gropu adinekoekin
- ❑ 1 Focus Gropu gazteekin
- ❑ Bilera 1 dibertsitate funtzionala duten pertsonen ordezkariekin

Prozesu parte hartzailea **prentsa-oharren** bidez eta Etxebiden (**Etxebizitza** plataformako berariazko atal bat) izen emandako **e-mailing** bidez eman da ezagutzera. Horrez gain, **sare sozialen** bidez ere horren berri eman da biztanleria prozesuan parte hartzera animatzeko, haien iritzia emateko eta proposamenak egiteko.

ERAGILE ADITUEN partaidetza




EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

- ❑ 1 lantaldearen koadernoa: Birgaitzea
- ❑ 2 lantaldearen koadernoa: Alokairua eta etxebizitza
- ❑ 3 lantaldearen koadernoa: Eraikuntza sektorea
- ❑ Saioaren emaitzak. Diagnostiko osagarriko puntuen laburpena: Birgaitzea
- ❑ Saioaren emaitzak. Diagnostiko osagarriko puntuen laburpena: Alokairua eta etxebizitza
- ❑ Saioaren emaitzak. Diagnostiko osagarriko puntuen laburpena: Eraikuntza sektorea

KANALAK

- ❑ 3 berariazko lan talde: Birgaitzea, Alokairua eta Etxebizitza, Eraikuntza
- ❑ Eragile adituen lan talde 1 Berrikuntza eta finantzaketa aukerak
- ❑ Berariazko plataforma



@EtxebizitzaEJGV



<https://www.linkedin.com/company/etxebizitza/>

Parte hartze adierazleak

Adierazlea	Emaizta
Partaideak guztira	2.434
Eragile partaideak guztira (bakarrak)	74
Biztanleriaren iritziak guztira*	2.409
EGPean gehitzeko aztertzen diren ekarpen integratuak guztira (iritziak eta proposamenak)**	83
EGPean gehitzeko BAI onartzen diren ekarpen integratuak guztira (iritziak eta proposamenak)**	%88
EGPean gehitzeko onartzen EZ diren ekarpen integratuak guztira (iritziak eta proposamenak)**%	6
Onartu gabeko proposamenen artean, Euskal Gobernuaren eskuduntza ez diren gaien ehunekoa dago	%80

(*) Online edo telefono bidezko inkestaren bidez parte hartu eta haien iritzia eman duten biztanleria orokorreko pertsona kopurua da guztira. Inkesta bakoitzean parte hartu duen pertsona kopurua hurrengo orrialdean azaltzen da.

(**) Iritzi edo proposamen nagusiak, bai biztanleria orokorrarenak eta baita eragile partaideenak, abiarazitako parte hartze kanalen bidez jasotakoak. Hainbat kanaletan bildutako iritzi eta proposamenetatik abiatuta, antzekoak direnak iritzi edo proposamen bakarrean bateratu dira, eta Etxebizitza Gida Planarentzat elementu garrantzitsuak ez zirenak baztertu dira, bai gutxiengoaren iritziak zirelako, bai iruzkin sinpleak zirelako edota baita ez zutelako loturarik prozesuarekin.

Bateratze eta iragazki prozesu horren ondoren, 83 ekarpen lortu dira guztira (iritziak eta proposamenak) eta horiek aztertu dira Etxebizitza Gida Planean gehitzeko onartzen ziren ala ez erabakitzeko. Dokumentuaren ondorengo orrialdeetan prozesuko iritzi eta proposamen nagusi horiek xehetasunez azaltzen dira. Ondoren, 2 eta 3 eranskinetan, biztanleriaren eta Gida Planaren eragileen iritzi eta proposamenak gehitzeko edo baztertzeko azterketa xehatua azaltzen da. Gehituz gero, gehitze hori nola egin den adierazten da eta baztertuz gero, arrazoiak azaltzen dira.

BIZTANLERIAREKIN izandako dinamiken erlazioa

Dinamika	Data(k)	Partaide kopurua guztira	Sexuaren araberako banaketa
2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruzko inkesta online - Etxebideko etxebizitza-eskatzaileak (Etxebizitzaren bidez irekia)	2021/05/27 - 2021/06/04	1.681	%56 emakumeak, %43 gizonezkoak eta %1 beste aukera batzuk
2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruzko inkesta - Euskadiko biztanleria orokorra (telefono bidez itxitako ausazko biztanleriaren inkesta)	2021/05/24 - 2021/06/01	705	%52 emakumeak eta %48 gizonezkoak
Etxebizitza birgaitzeari buruzko inkesta online (Etxebizitzaren bidez irekia)	2021/06/04 - 11/06/2021	23	%74 emakumeak eta %26 gizonezkoak
Partaidetza lan tailerra online gazteekin (Focus Group)	2021/05/24	11	%36 emakumeak eta %64 gizonezkoak
Partaidetza lan tailerra online nagusiekin (Focus Group)	2021/06/01	9	%44 emakumeak eta %56 gizonezkoak
Bilera dibertsitate funtzionala duten pertsonen ordezkariekin	2021/06/08	5	%40 emakumeak eta %60 gizonezkoak
GUZTIRA		2.434	%55 emakumeak, %44 gizonezkoak eta %1 beste aukera batzuk

Biztanleriarekin burututako partaidetza prozesuak oinarritzat hartu ditu zenbait dinamika biztanleriaren hainbat talderen iritzi eta proposamenak jasotzeko asmoz.

- Etxebiden izena emandako etxebizitza-eskatzaileei galdeketa online inkesta baten bidez. Galdetegi hori zabaldik egon da biztanleriarentzat Etxebizitza partaidetza plataformaren bidez.
- Euskadiko biztanleria orokorrari inkesta, informazioa telefono bidez jasoz.
- Etxebizitzak birgaitzen esperientzia duen biztanleriari galdeketa online inkesta baten bidez. Galdetegi hori zabaldik egon da biztanleriarentzat Etxebizitza partaidetza plataformaren bidez.
- Lan edo eztabaida tailerrak berariazko kolektiboekin. Dinamikak burutu dira gazteekin, nagusiekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonekin.

ERAGILEEKIN izandako dinamiken erlazioa

Dinamika		Data(k)	Eragile partaide kopurua guztira	Partaide kopurua guztira
Hedatutako taldea	Etxebizitza Gida Planaren sorkuntza estrategiaren aurkezpen saioa	2021/04/19	18	81
Birgaitze taldea	Diagnostiko eta testuinguruaren oinarrien azterketa eta baliozkotzea	2021/04/21	31	96
	Garatu beharreko estrategia, helburu eta ekintza proposamenak	2021/05/17		
Alokairu eta etxebizitza taldea	Diagnostiko eta testuinguruaren oinarrien azterketa eta baliozkotzea	2021/04/22	32	93
	Garatu beharreko estrategia, helburu eta ekintza proposamenak	2021/05/20		
Erakintza sektoreko taldea	Diagnostiko eta testuinguruaren oinarrien azterketa eta baliozkotzea	2021/04/27	31	83
	Garatu beharreko estrategia, helburu eta ekintza proposamenak	2021/05/24		
Berrikuntza Taldea eta Finantzaketa Aukerak	EGPerako proiektu berritzaileen proposamen posibleak identifikatzea	2021/05/11	8	8
	EGPerako hautatutako berrikuntza lerroen azterketa eta garapena.	2021/05/25	6	6
	Zerga-ereduen garapen eta aurkezpena eta birgaitze sustapena Italian	2021/06/09	2	4
GUZTIRA			74*	-

(*) Eragile bakarrak. Eragile batzuk talde batean baino gehiagotan parte hartu dute.

3

JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN NAGUSIAK

3.1

ERAGILEEN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

ERAGILEEN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): ALOKAIRU ESKURAGARRIA

IRITZIAK

- Akordio orokorra lortzeko, pertsonengan jarri behar dela arreta nagusia alokairua sustatzeko politikak diseinatzeko orduan, bereziki kalteberenetan. Ondorioz, beharrezkoa da erakundeen arteko koordinazioa Euskal Gobernuan eta beste erakunde batzuetan indarrean dauden beste politika eta plan batzuekin.
- Alokairu soziala indartzearen eta alokairuaren merkatura sartzeko eragozpen gehien dituzten pertsonen alde egiteko beharra gailentzen da, horretarako, alokairuen prezioak zuzenean kontrolatzeko beharrezko azpimarratzen da.

PROPOSAMENAK

- Eraikitako etxebizitza sozialen alokairua sustatzeko programak eta Alokabide programak indartu, babestutako etxebizitzaren eraikuntza eta Bizigune-ren moduko programak sustatu. Aldi berean, birgaitze programak ere bultzatu.
- Cohousing eta antzeko ereduak indartu egungo alokairu sustapen politikarekin batera, hori guztia diru-sarrera txikiak dituzten pertsonengan eta senior ereduan (bereziki bakarrik bizi diren emakumeak) arreta jarritz, eta era berean, belaunaldien arteko erlazioak eta bizi-proiektu kolektiboak bultzatu.
- Emantzipaziorako laguntzak indartu, Gaztelagun-en garapena bultzatuz eta programa horren genero ikuspegiaren garrantzia gailenduz. Era berean, gunerik larrienetako etxebizitzetako gehieneko errentak handitzea proposatu.
- Alokairu eskuragarriarekin lotutako ikuspegi berri bat sustatu, modu horretan, diru-sarrera mugatuak eta ertainak dituzten biztanleriako taldeek etxebizitzak eskuragarriago izan ditzaten.

ERAGILEEN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): ERAIKUNTZA SEKTOREA INDARTZEA ETA BIRGAITZEA SUSTATZEA

IRITZIAK

- Birgaitze laguntzetan familia ikuspegia gehitzeko eta birgaitzearen eragina ikuspegi sozialetik ebaluatzeko beharrezana azaltzen dira.
- Eskuragarritasuna eta bizigarritasunaren garrantzia indartzea birgaitzearen funtsezko elementutzat jotzea gailentzen da.
- Eragile guztiak datoz bat EBeko Funtzak birgaitze politiken kalitatea hobetzeko aukera ona direla diotenean. Horretarako, beharrezkoa da programa horiek dinamizatzeko birgaitze eragile bat hautatzea eta erakunde partaideen arteko koordinazioa hobetzea.
- Ezinbestekotzat jotzen da enpresa sektorea eta horren giza kapitala indartzea, trebatutako langileak lantaldera gehituz, bereziki energia-eraginkortasun eta industrializazio alorretan.
- Plan Zuzentzailearen barruan eraikuntza sektorearen ikuspegi estrategikoa lantzearen garrantzia azpimarratzen da.
- Euskal Gobernuko beste erakunde eta Sail batzuekin lan egiteko beharrezana gailentzen da, eraikuntza sektoreko enpleguaren kalitatea eta langileen trebakuntza indartzeko.

PROPOSAMENAK

- Administrazioako beste maila eta erakunde batzuekin elkarlana eta koordinazioa indartu, bereziki udaletxeekin, baita birgaitze finantzaketari dagokionez:
 - ☐ Diru-laguntzak ugaritu, esku-hartzeak gehitzeko eta zailtasun gehien dituzten kolektiboen birgaitze eskuragarritasuna errazteko.
 - ☐ Hein handi batean EBak emandako funtsetik eratorritako finantzaketa handitzeari erantzuna emateko, kolaborazio-publiko pribatu tresna berriak prestatu eta egiturak sortu.
 - ☐ Birgaitzea zerga arloan landu finantzaketari dagokion funtsezko gai gisa.
 - ☐ Eraikuntza Kode Teknikoa egokitu edo eguneratu.

ERAGILEEN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): BERRIKUNTZA

PROPOSAMENAK

- Etxebizitza hutsak mugiarazteko eta horiei dagozkien inbentarioak osatzeko Udaletxei zuzendutako laguntza-lerroak sustatu.
- Energia Erkidegoak garatzeko azterketak burutu, energia berriztagarriak sortzeko gaitasuna handitu eta ekonomia zirkularra bultzatu..
- Ekonomia Zirkularra sustatzeko azterketak eta proiektuak burutu.
- Eraikuntza sektoreko birgaitze alorra indartu eta trebatutako emakumeak gehitu eraikuntza sektorean.
- Zerga eredu berrien azterketa, bereziki birgaitze alorrari dagokionez.

3.2

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): ETXEBIZITZA ESKURAGARRITASUNA

IRITZIAK

- Lan prekarietatea, langabezia eta etxebizitza propioaren prezio, etxebizitza eskuratzeko eta ordaintzeko oztopo nagusitzat jotzen dira. Modu horretan, enpleguaren eta etxebizitzaren arteko lotura zuzena gailentzen da, eta baita etorkizuneko estrategietan gai biak batera lantzeko aukera.
- Etxebizitza hutsa merkaturatzeko esku-hartzearen beharra azpimarratzen da, horiek eraiblera eta merkaturatzea sustatzeko ekintzen bidez (mugikortasuna bultzatzeko programak/ekintzak, etxebizitza horien jabeen zigorrak...).
- Etxebizitza eskuratzeko formula/alternatiba berriak aurkeztea ontzat jotzen du Administrazioak, esaterako: cohousing-a (modu kolaboratiboan bizitzeko elkartzen diren pertsonak) eta zerbitzu-komunitateak.

PROPOSAMENAK

- Administrazioak etxebizitza hutsetan esku hartuz gero eraginkortzat jotzen dituen neurriei dagokienez, ondorengoak dira babes handiena jaso dutenak:
 - ☐ Jabeei bermeak eskaini, esaterako, ordainketa-, kalte-, okupazio- eta etxegabetze-bermeak.
 - ☐ Egokitzapen/birgaitze obretarako laguntzak eskaini, bai alokairua baino lehen eta baita gero, egon daitezkeen kalteak konpontzeko.
 - ☐ Etxebizitza ugari dituzten jabeen, putre-funtsen, etab.-en desjabetzea.

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): ETXEBIZITZA ALOKAIRUA

IRITZIAK

- Babestutako etxebizitzari dagokionez, akordio luze bat dago Administrazio Publikoaren eskutik alokairua etxebizitza merkatuko esku-hartze ardatza izateko.
- Babestutako etxebizitzaren alokairuari dagokionez, bereziki garrantzitsutzat jotzen dira biztanleriarentzat ondorengo gaiak:
 - ☐ Alokairurako diru-laguntzak konpentsazio gisa, etxebizitza publiko nahiko ez badago.
 - ☐ Alokairu eskuragarria sustatzeko politikak.
 - ☐ 2030erako alokairu eskaintza bikoiztu.
 - ☐ Etxebizitza libreak erostea sustatu, babestutako alokairurako erabiltzeko.
 - ☐ Babestutako etxebizitzaren alokairua sustatu erosketa sustatu beharrean.
 - ☐ Babestutako alokairua sustatu landa gunean.
- Babestutako etxebizitzako kudeatzeko eta sustatzeko eragile arduradunei dagokienez, eragile sozialak izatea egokitzen jotzen da, betiere, ez bada gailentzen mota pribatuko eragileen babes argia.
- Alokairuaren prezioak kontrolatzeko administrazioaren esku-hartzeari dagokion akordio orokorra dago. Alokairuaren prezioetan esku hartzeko orduan, egokitzen jotzen da, lehenbizi, gehieneko prezioen kontrola, eta ondoren, baita jabeen zuzendutako pizgarriak.

PROPOSAMENAK

- Alokairuen prezioan esku hartzeko neurriei dagokienez, ondorengo adierazten da:
 - ☐ Alokairu eskaintza handitu, modu horretan, alokairu pribatuaren prezioa jaisteko.
 - ☐ Etxebizitza hutsen jabeen zergak ezarri (kanon, tasak...)
 - ☐ Alokairuaren prezioa mugatu Adibidez: m2 eta eremuko gehieneko prezioa ezarri; eremuko batez besteko soldataren %x gehieneko prezioa, etabar.
 - ☐ Alokairu kontratuetako irizpideak arautu, adibidez, fidantza altuak emateko derrigortasuna.

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzia eta proposamen nagusiak

Gaia(k): BIRGAITZEA

IRITZIAK

- Laguntzak eraikinen ikuskapen teknikoetan hautemandako beharrianekin are gehiago lotu beharko liratekeela adierazten duen akordio orokorra dago.
- Etxebizitza hutsak birgaitzeko laguntza-ekonomikoak emateko orduan akordio orokorra dago, ondoren, etxebizitza horiek prezio egokian alokairuan jar daitezten.
- Birgaitzeari dagokionez, ondorengo alorrak bereziki garrantzitsutzat jotzen dira:
 - ☐ Etxebizitzen eskuragarritasuna hobetzea sustatu (igogailuak, eskailerak, mugikortasuna errazteko barneko obrak...)
 - ☐ Etxebizitzen energia-eraginkortasuna hobetzea bultzatu (argi-, gas- eta ur-kontsumo arduratsuaren bidez)
 - ☐ Etxebizitzen bizigarritasun eta erosotasun baldintzak hobetzea sustatu.
 - ☐ Energia-erkidegoak bultzatu (energia amankomunean kudeatzen duten komunitateak eta, are gehiago, iturri berriztagarrien bidez energia sortzen duten komunitateak)
- Epe ertaineko birgaitze finantza-laguntza tresnari dagokionez, aintzat hartzen dira bai inbertsioaren zati mugatu bat kitatzeko bueltatu behar ez diren diru-laguntzak, bai inbertsioaren zati handi bat finantzatzeko mailegu pribatuak lortzeko abal publikoa.

PROPOSAMENAK

- Etxebizitza birgaitzeko proposamenei dagokienez, ondorengoak gailentzen dira:
 - ☐ Eskuragarritasun obrak sustatu eta muga arkitektonikoak kendu (bai etxebizitzaren barnealdean eta baita kanpoaldean)
 - ☐ Energia-eraginkortasuna bultzatu: inguratzailea termikoa, eguzki-panelak ezartzea, galdara ekologikoak, kondentsazioak kentzea, etabar.
 - ☐ Familia bakarreko etxebizitzak birgaitzea sustatu (adib.: baserriak, erortzeak dauden etxeak...)
 - ☐ Landa gunean bizi direnei diru-laguntza gehiago eman etxebizitzen kanpoaldearen eskuragarritasuna hobetzeko diru-laguntzan esleitzeko orduan.
 - ☐ Etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko diru-laguntzak emateko eta eskatzeko epeak eta izapideak erraztu eta gutxitu, eta dauden diru-laguntzen komunikazioa hobetu.
 - ☐ Diru-laguntzen komunikazioa eta berri ematea hobetu, horretarako kanalak eta informazioa mota guztietako pertsonentzat egokituz (nagusiak, dibertsitate funtzionala dutenak...) SUR, berariazko kolektiboen elkarleen ordezkariak, etab. erabiltzea proposatzen da.
 - ☐ Birgaitze diru-laguntzak aurkezteko orduan, dibertsitate funtzional guztiak aintzat hartu, baita zentzumenekoak (itsuak, gorrak...), haiek ere etxebizitzak haien beharretara egokitu behar baitituzte.

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): BERARIAZKO KOLEKTIBOAK

IRITZIAK

- Akordio orokorra dago etxebizitza eskaintzeaz gain, Administrazioak ekonomikoki babestu behar dituela eskuragarritasun arazoak dituzten kolektiboak dioena. Bereziki horren alde egiten dute haien emantzipaziorako laguntza eskatzen duten gazteek, egoera ekonomiko txarrean bizi diren kolektiboek, etxegabetxea pairatu duten pertsonen, guraso bakarreko familiek eta genero-indarkeria pairatu duten biktimek.
- Gazteen emantzipazioa sustatzeko berariazko programen beharra gailentzen da (Gaztelagun eta beste batzuk).
- Belaunaldien arteko etxebizitza kolaboratiboen proiektuak oso aukera aberasgarriak dira (bai nagusientzat eta baita gazteentzat).

PROPOSAMENAK

- %40ko kupoa gorde gazteentzat alokairu publikoaren esleipen-prozesuetan.
- Gaztelagun programaren irizpideak berrikusi. Hobetu beharreko aldean, ondorengoa proposatzen da: onuradunen adina handitu, irizpide ekonomikoak malgutu, laguntza handitu eta laguntzaren iraupena luzatu edo muga kendu (gaur egun 3 urte).
- Pertsona nagusiei zuzkidura-bizitokiak izateko aukera eman, horiek haien etxebizitza Euskal Gobernuari babestutako alokairuan jar dezan ematearen truke.
- Etxebizitza Plan Zuzentzailean adierazi etxebizitzaren garrantzia dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-eredu independienterako.
- Ekintza positiboko neurriak gehitu, dibertsitate funtzionala duten pertsonen etxebizitza eskuragarri izatea bultzatzeko. Bereziki, etxebizitza, etxebizitza sozial eta babes ofizialeko etxebizitza programetan.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen etxebizitza-eskuragarritasuna erraztu, eta, horretarako, ondorengoa burutu:
 - ☐ Kolektiboaren emantzipazioa sustatzeko programak bultzatu:
 - ☐ Zuzkidura-bizitokiak baliatu (gaur egun gazteei edo nagusiei bideratuta daude).
 - ☐ Bizi independienterako trantsizioa errazteko baliabide motaren bat sortzeko aukera mahaigaineratu.

PROPOSAMENAK (kont.)

- Alokairua sustatzeko programa publikoetan, etxebizitza eskuragarriak eta egokituak daudela bermatu.
- Etxebizitza hutseko alokairuaren programa publikoetan (Bizigune) etxebizitza eskuragarriak daudela bermatu.
- Zein etxebizitza edota eraikin dauden egokituta edota eskuragarriak diren jakin. Bereziki alokairu merkatuaren jarraipen-sistemetan, mota horretako etxebizitzari buruzko informazioa eman, eskuragarria den ala ez dioena (ez bakarrik igogailua duen edo ez, baizik eta higiezinaren benetako eskuragarritasunari buruzko informazioa), barnealdea egokituta duen ala ez adierazten duena (komuna, balkoien irisgarritasuna, sukaldea, etab.).
- Etxebizitzari dagozkion txosten eta ikerketa guztietan eskuragarritasuna gehitu.

BIZTANLERIAREN aldetik jasotako iritzi eta proposamen nagusiak

Gaia(k): FISKALITATEA

IRITZIAK

- Akordio orokorra dago etxebizitza politikaren zerga-kenkariak ezartzeari dagokionez. Akordio horretan, birgaitzeko politiketarako, alokairu ordainketarako eta etxebizitza erosketarako kenkariak daude.

4

PROZESUAREN ERAGINA GIDA PLANEAN: IKUSPEGI OROKORRA

Prozesuaren eragina Gida Planean: Ikuspegi orokorra

Etxebizitza Gida Plana idatzi duen taldeak ezarritako partaidetza kanalen bidez jasotako eragileen eta biztanleriaren iritzi eta proposamenak balioztatu ditu, ondorengo 3 egoeretan bananduz:

- Gida Planera gehitu behar diren ekarpenak.
- Gida Planera gehitu behar ez diren ekarpenak.
- Kontuan hartu beharrezko beste egoera batzuk, baina Gida Planari ez dagozkionak (estatistika-datu iturriekin edo eskuragarri ez dagoen informazioarekin lotutakoak, metodologia-kontuak, etab.).

Azterketa egin ondoren, **biztanleriaren eta eragileen ekarpenen 88% 2021-2023 Etxebizitza Gida Planean azaltzen dira.**

Gehitu ez diren ekarpenei dagokienez, horiek ez onartzeko arrazoiak ondorengoak izan dira:

- Euskal Gobernuko Etxebizitza Sailaren ardura ez den alor bati dagozkienak (onartu ez direnen %80).
- Beste arrazoi batzuk.

2 eta 3 eranskinetan Gida Planeko biztanleriaren proposamen eta iritzien azterketa xehatua azaltzen da.

ETXEBIZITZA GIDA PLANA IDATZI DUEN TALDEAK BALIOZTATUTAKO IRITZI ETA PROPOSAMENAK

83

Gehitutakoak

%88

Gehitu
gabekoak

%6

Beste egoera
batzuk

%6

5

BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Balorazioa eta ondorioak

Eskainitako hainbat parte hartze aukerei esker burututako partaidetza prozesuari esker, **bai biztanleriaren eta baita eragile gakoan iritzi eta proposamen ugari bildu dira.** Horiek funtsezkoak dira 2021-2023 Etxebizitza Gida Planean Euskadiko etxebizitza politiken gida-norabideak ezartzeko datozen urteetan.

Modu horretan, prozesuari esker **Euskal Gobernuak babestutako alokairua bultzatzeko baliabide eskaintzaren alde egindako apustua berretsi da,** bereziki arazo handienak dituzten kolektiboentzat (gazteak, nagusiak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak...) konponbideak bilatzeko ahalegina eginez, alokairuaren prezioaren kontrolean esku hartuz, **eta baita dagoen eraikuntza eta etxebizitza eskaintza hobetuz birgaitze integrala bultzatuz,** azken kasu horretan, energia-eraginkortasunaz gain, kontuan hartu dira eskuragarritasuna eta bizigarritasuna. Horrez gain, **erakudeen arteko koordinazioa eta etxebizitza sektoreko eragile publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzeko ekintzak antolatzearen garrantzia gailendu da.**

Metodologia ikuspuntutik, hainbat mekanismo erabiltzeari esker (inkestak, sakontzeak bilera eta focus group-en bidez), gai gakoan ikuspegi orokorra lortu da, eta gai operatibo estrategikoak proposatu eta eztabaidatu dira.

Ondorioz, burututako prozesu parte hartzaileari esker, ekarpenak gehitu dira **denon artean estrategia eta konponbideak garatzeko,** datozen urteetako Euskadiko etxebizitza politiken gobernantza kolaboratiboa babesteko eta hobetzeko estrategia eta konponbideak.

Gainera, **parte hartze foro egonkor bat eratze lan prozesu bat garatzea aurreikusita dago planean (Euskadiko Etxebizitza Foroa).** Foro hori kontsultak egiteko izango da eta etxebizitza sektoreko eragile publiko eta pribatu guztien elkarlanaren bidez eratuko da. Horri esker, etxebizitza politiken diseinua hobetzeko eta gainontzeko politikekin koordinatzeko (lurralde-antolamendua, gizartea, ekonomia, etab.). **Foro hori** diagnostikoak, estrategiak, planak etabar **elkarbanatzeko topagune bat izan beharko litzateke.**

ERANSKINAK

Eragile partaideen erlazioa

HEDATUTAKO TALDEA*

- Gipuzkoako Eraikitzaileen Elkarte (ASCONGI)
 - Bizkaiko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte Nagusiak
 - Arabako Eraikitzaile Sustatzaileen Elkarte (Sea-Uneca)
 - Bilboko Udala
 - Donostiako Udala - Donostiako Etxegintza
 - Cohousing Spain
 - Administrazioaileen Lurralde-Kolegio Ofiziala
 - Higiezinaren Jabetza – Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofiziala
 - COAVN Gipuzkoa - Gipuzkoako Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - COAVN Bizkaia – Bizkaiko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - COAVN – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - Ekonomistak Euskal Elkargoa
 - Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua
 - EUDEL
 - Hirukide
 - Ikertalde-Ikerpartners
 - Sestao Berri
 - Surbisa
- Eusko Jaurlaritza
 - ❑ Lan eta Enplegu Saila
 - ❑ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
 - Gazteria Saila
 - Gazteria Zuzendaritza
 - Familia eta Haurren Zuzendaritza
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
 - ❑ Lehendakaritza
 - ❑ Ekonomia eta Ogasun Saila. Zerga Administrazioa Zuzendaritza
 - ❑ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetza
 - Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
 - Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza
 - Etxebizitzako Behatokia
 - Alokabide
 - Visesa
 - ❑ Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza

(*) Etxebizitza Plan Zuzentzailearen eraikuntza prozesuaren aurkezpenera burutzeko hasierako talde zabala. Horrekin egituratu ziren Alokairu eta Etxebizitza, Birgaitze eta Eraikuntza Sektoreko berariazko lan taldeak.

Eragile partaideen erlazioa

ALOKAIRU ETA ETXEBIZITZA TALDEA

- Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkartea (Ascobi - Bieba)
 - Gipuzkoako Eraikitzaileen Elkartea (ASCONGI)
 - Bizkaiko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea Nagusiak
 - Azkoitia Lantzen, S.A.
 - BIDEBI
 - Bizkaiko Soro - Administrazioaileen Lurralde-Kolegio Ofiziala (C.A.F. BIZKAIA)
 - Laboral Kutxa
 - Caritas
 - Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
 - Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
 - Gipuzkoako eta Arabako Finka Administrazioaileen Lurralde Elkargoa
 - COAVN – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - Ekonomistak Euskal Elkargoa
 - Debegesa
 - Elkartu
 - Enerkialia
 - EUDEL
 - Fekoor
 - Aubixa Fundazioa
 - Hirukide
 - Ikertalde-Ikerpartners
 - Irunvi
 - Oarsoaldea, S.A
 - Sestao Berri
 - Kaleratzeak Stop Euskadi
 - Suradesa
 - Surbisa
 - Surposa
 - Tecnalia
- Eusko Jaurlaritza
 - ❑ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetza
 - Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
 - Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza
 - Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
 - Etxebizitzako Behatokia
 - Alokabide
 - Visesa
 - ❑ Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza

Eragile partaideen erlazioa

BIRGAITZE TALDEA

- Adania
 - Agencia Inmobiliaria Valenciaga
 - Ametsak Sortzen
 - Arenhos Advisors
 - Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkarte (Ascobi - Bieba)
 - Bizkaiko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte Nagusiak
 - Adinekoentzako baterako etxebizitza sustatzeko egunsentia elkarte
 - Arabako Eraikitzaile Sustatzaileen Elkarte (Sea-Uneca)
 - Bilboko Udala
 - Vitoria-Gasteizko Udala
 - Bizikoop, Etxebizitza Kooperatiben Federazioa
 - Cohousing Spain
 - Bizkaiko Soro - Administrazioaileen Lurralde-Kolegio Ofiziala (C.A.F. BIZKAIA)
 - Higiezin Jabetza – Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofiziala
 - Higiezin Jabetza – Agenteen Gipuzkoako Elkargo Ofiziala
 - COAVN Gipuzkoa - Gipuzkoako Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - OAVN – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - Ekonomistak Euskal Elkargoa
 - Elkartu
 - Aubixa Gundazioa
 - Grupo Arrasate
 - Grupo Norte Sur
 - Hirukide
 - Ikertalde-Ikerpartners
 - Efikalia higiezin agentzia
 - Olano higiezin agentzia
 - Txapartegi higiezin agentzia
 - SESTAO BERRI
 - Kaleratzeak Stop Euskadi
- Eusko Jaurlaritza
 - ❑ Lan eta Enplegu Saila
 - ❑ Lanbide
 - ❑ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
 - Gazteria Zuzendaritza
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
 - ❑ EVE
 - ❑ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetza
 - Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
 - Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza
 - Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
 - Etxebizitzako Behatokia
 - Sailaren Estatistika Organoa
 - Alokabide
 - Visesa
 - ❑ Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza

Eragile partaideen erlazioa

ERAIKUNTZA SEKTORE TALDEA

- Arenhos Advisors
 - Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkarte (Ascobi - Bieba)
 - Bilboko Udala - Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.
 - SURBISA
 - Vitoria-Gasteizko Udala
 - BIDEBI
 - Bizitegi
 - Bufete Barrilero y Asociados
 - Caixabank
 - COAVN Gipuzkoa - Gipuzkoako Arkitektoen Elkargo Ofiziala
 - Cohousing Spain
 - Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua
 - Bizkaiko Soro - Administratzaileen Lurralde-Kolegio Ofiziala (C.A.F. BIZKAIA)
 - Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
 - Ekonomistak Euskal Elkargoa
 - Ensanche 22
 - Eraikune - Eraikuntzaren Klusterra Euskal Herrian
 - Aubixa Fundazioa
 - Eraikuntzaren Lan Fundazioa - Fundación Laboral de la Construcción
 - Gipuzkoako Aparejadoreen Elkargoa
- Eukso Jaurilaritza
 - ❑ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetza
 - Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
 - Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza
 - Alokabide
 - ❑ Arabako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza
 - ❑ Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritza

Partaide adituen erlazioa BERRIKUNTZA TALDEA

PERTSONA ADITUA	KARGUA
Ivan Blecic	Ebaluazio eta balorazio irakasle elkartua (Cagliari-ko Unibertsitatea)
Arnaldo Chechini	Hiriaren Eskubidearen aldeko Ekintza Kolektiboa elkartearen lehendakaria. Hirigintza Katedratikoa (Sassari-ko Unibertsitatea) 2018ra arte
Oriol Nel-lo	Geografia irakasle titularra (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa)
Juan José De Andrés	Ikertalde-ko lehendakaria. Ekonomista. Enpresa eta gizarte proiektuen sortzaile eta sustatzailea, politika sozialen ebaluazioan, eta plan eta politika publiko-pribatuetako akordioen eraikuntzan aditua.
Iker San Román	Abokatua. Etxebizitza politiken diseinuan aditua
Iñaki Bolivar	Udal kudeaketan esperientzia duen arkitektoa
Marta Román	Geografoa. Udal eta etxebizitza plangintzari dagokion genero politikan aditua
Alfonso Saez	Geografoa eta Matematikaria

Horrez gain, talde saio baten parte hartu zuten KlimaHaus-eko 3 arduradunek, Tirol Hegoaldeko eskualdeko CasaClima-koak (Italia), eta Cagliari-ko Unibertsitateko pertsona batek, etxebizitzari dagozkion zerga-sistemetan eta superbonus italiarrean aditua.

2 eranskina

Gida Planeko eragile eta adituen proposamen
eta iritzien azterketa xehatua

Gida Planeko eragileen proposamen eta iritzien azterketa xehatua

ALOKAIRU ETA ETXEBIZITZA TALDEA

DIAGNOSTIKOA HOBETZEKO ERAGILEEK ETA ADITUEK EGINDAKO EKARPENAK

Zk.	Iritzia / Proposamena	Ekarpenaren onarpena	Diagnostikoan ezarritako neurriak
C046	Etxebizitza hutseko alokairuaren programa publikoetan (Bizigune) etxebizitza eskuragarriak daudela bermatu.	EZ	Sailak ezin du hori bermatu ez direlako babestutako etxebizitzak, libreak eta zaharrak dira, beraz, eskuragarritasuna ez dago zihuratuta.




Zk.	Iritzia / Proposamena	Ekarpenaren onarpena	EGPea dauden jarduera-lerroak eta ekintzak
C047	Zein etxebizitza edota eraikin dauden egokituta edota eskuragarriak diren jakin. Bereziki alokairu merkatuaren jarraipen-sistemetan, mota horretako etxebizitzari buruzko informazioa eman, eskuragarria den ala ez dioena (ez bakarrik igogailua duen edo ez, baizik eta higiezinaren benetako eskuragarritasunari buruzko informazioa), barnealdea egokituta duen ala ez adierazten duena (komuna, balkoien irisgarritasuna, sukaldea, etab.).	BAI	Sailaren etxebizitzaren kasuan, jada badago karakterizazio hori, gainontzekoetan Euskal Eskuragarritasun Kontseiluari eskatzen zaio.
C048	Etxebizitzari dagozkion txosten eta ikerketa guztietan eskuragarritasuna gehitu.	BAI	Gida Planean azaltzen ez bada ere, Saila etxebizitza-txosten, -ikerketa eta -azterketa guztietan eskuragarritasuna gehitzeko konpromisoaren alde dago.
C049	Akordio orokorra dago etxebizitza politikaren zerga-kenkariak ezartzeari dagokionez. Akordio horretan, birgaitzeko politiketarako, alokairu ordainketarako eta etxebizitza erosketarako kenkariak daude.	BAI	Planaren ezaugarri nagusietako bat alokairu eskaintza handitzeko, prezioak kontrolatzea errazteko eta indarrean dauden birgaitze kenkariak hobetzeko zerga-sistema baten alde egitea da. Gainera, Planaren 4 Ardatzean etxebizitzarekin orokorrean lotutako zerga-politikaren koordinazioa ere hobetu nahi da, bereziki birgaitze politiken finantzaketari dagokionez.

4 eranskina


2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz
egindako inkestaren emaitzak

Euskadiko biztanleria orokorra (telefono bidez)


Parte hartu duten pertsonen profila ondorengo da:



Adierazi zein den zure ustez eragozpenik handiena etxebizitzaren eskuragarritasunari eta ordainketari dagokionez Aukera nagusia eta bigarren mailako bi aukera




Aukeratu ahal izanez gero, zer uste duzu dela aukera hobe, etxebizitza bat erostea ala alokatzea?




Zein onura edota desabantaila ditu alokairuak erosketarekin alderatuz gero?


ETXEBIZITZA hautatzeko arrazoiak




ALOKAIRUA hautatzeko arrazoiak




Babestutako etxebizitzari edo etxebizitza sozialari dagokionez, zein motako etxebizitza eskaini beharko luke Administrazio Publikoak?




Euskal Gobernuaren helburuen artean 2030RAKO ALOKAIRU PUBIKOAREN ESKAINTZA BIKOIZTEA egotearekin ados zaude?




Babestutako etxebizitzari edo etxebizitza sozialari dagokionez, nola esleitu beharko litzateke etxebizitza mota hori?




Ados zaude Foru Aldundiek PFEZaren araudian kenkariak gehitzearekin?




Etxebizitzak eskaintzeaz gain, Administrazioak etxebizitza lortzeko arazoak dituzten ondorengo kolektiboei BEREZIKI lagundu beharko lituzkeela uste duzu?




Adierazi zenbaterainoko garrantzitsua den Etxebizitza Plan Zuzentzaileak ondoren azaltzen diren ekintzetako baten bat gehitzea. (Eskalan 1 ez da batere garrantzitsua eta 5 oso garrantzitsua da)




Ados zaude Administrazioak ALOKAIRU ESKURAGARRIA* SUTATZEKO POLITIKAK bultzatzearekin eta alokairuaren prezioa gehiegi igotzea ekiditearekin?



Alokairuaren prezioan esku hartzea erabakiz gero, zein motako politika erabili beharko litzatekeela uste duzu?




(*) Alokairu eskuragarritzat jotzen da babestutako etxebizitzaren prezioa baino altuagoa duena baina merkatuko balioaren azpitik dagoena.




Etxebizitza sozialaren eskaintza handitzeko beharra kontuan hartuta, ados zaude ondorengo ERAGILE MOTEK ETXEBIZITZA HORIEK SUSTATU ETA KUDEATZEAREKIN? Betiere etxebizitza horiek etxebizitza publikoaren eskaintzen gehitzen badira.

Babes sozialeko etxebizitzaren sustapen eta kudeaketarako OPERADORE SOZIALEN irakurkari buruzko iritzia





Babes sozialeko etxebizitzaren sustapen eta kudeaketarako OPERADORE PRIBATUEN irakurkari buruzko iritzia




- GIZARTE MOTAKO OPERADOREAK (irabazi-asimorik gabeko erakundeak, kooperatibak...)
- OPERADORE PRIBATUAK (betiere Administrazioaren eskutik beharrezkoa den gainbegiradarekin, espekulazio eragileak saihesteko)


ETXEBIZITZA HUTSAK merkaturatzeko esku hartzea erabakiz gero, zein motako politika erabili beharko litzatekeela uste duzu?




**Birgaitzeari dagokionez, adierazi zein garrantzitsua den 1etik 5era
Administrazioak ondorengo alorrak babestea. (1 EZ DA BATERE
GARRANTZITSUA 5 OSO GARRANTZITSUA DA)?**



**Etxebizitzak birgaitzeko eta berriztatzeko Euskal Gobernuak
burutzen dituen Ikuskapen Teknikoak ezagutzen dituzu?**




**Nola sustatu beharko liratekeela uste duzu EIT horien ondorio
diren beharrezko obrak burutzea?**




Orokorrean: zein ekintza zehatz gustatuko litzaizuke administrazioak garatzea ALOKAIRU ESKURAGARRIA sustatzeko eta diru-sarrera murriztuak eta ertainak dituztenek etxebizitza ordaindu ahal izateko haien diru sarreraren %30 baino gutxiago izanik?



Egungo zein politika lehenetsi eta garatu beharko litzatekeela uste duzu?



Gaur egungo etxebizitza politikaren ekintzaren bat trabatzat edo negatibotzat jotzen al duzu?



5 eranskina

2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz
egindako inkestaren emaitzak

Etxebideko etxebizitza-eskatzaileak
(Etxebizitzaren bidez)




2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruzko inkestaren helburu nagusia EGPea gehitu beharreko alor nagusiei buruzko **euskal biztanleriaren iritzia** ezagutzea izan da.





Biztanleriarentzat bereziki garrantzitsua den gai bat denez, etxebizitzara zuzendutako ekintzak bideratzen dituzten estrategia eta proiektuei buruz duten iritzia jakiteko inkesta bat egin da. Horri esker, euskal biztanleriak etxebizitza eskuragarriago izateko (bereziki oztopo handienak dituztenek) eta babestutako alokairua bultzatzeko ekintzak sustatzeko.




Parte hartze prozesua uneoro irekia izan da, Etxebideko etxebideko etxebizitza-eskatzaileri bidalitako online inkesta baten bidez. Gainera, inkesta betetzeko eskuragarri egon da Etxebizitza partaidetza plataformaren bidez.

Inkesta irekita egon zen 10 egunez maiatz eta ekain artean. Epe horren ondoren, **biztanleriak betetako 1.681 galdetegi jaso dira** guztira.



Parte hartu duten pertsonen profila ondorengoa da:








Etxebizitza sozialen parkea handitu behar denez, ados al zaude honako ERAGILE MOTA HAUEK mota horretako etxebizitzak sustatu eta kudeatu ahal izatearekin, baldin eta etxebizitza horiek etxebizitza-parke publikoan integratzen badira (nahikoa denbora igaro ondoren)?




(Batez besteko balorazioa, 1etik 4ra bitarteko eskala batean)

**zer neurri lirateke eraginkorrenak ALOKAIRUEN
PREZIOAN ESKU HARTZEKO?**



**Administrazioak esku hartzen badu
ETXEBIZITZA HUTSAK merkatuan jartzea
errazteko, zure ustez zer neurri hartu
beharko litzateke?**



- Inkestatutako pertsonen alokairuen prezioan esku hartzeko proposatutako beste neurri batzuei dagokienez (gehien errepikatzen direnetatik gutxien errepikatzen direnetara antolatuta daude):
 - ☐ Alokairuen prezioan esku-hartzeko alokairu eskaintza handitu, horrela, alokairu pribatuek prezioa jaisteko
 - ☐ Hainbat etxebizitza hutsen jabeei zergak ezarri
 - ☐ Alokairuaren prezioa mugatu Adibidez: m2 eta eremuko gehieneko prezioa ezarri; eremuko batez besteko soldataren %x gehieneko prezioa, etabar.
 - ☐ Cohousing senior-aren, belaunaldi artekoaren edota gazteentzat landa guneko cohousing-aren moduko ereduak.
 - ☐ Epe luzeko alokairua turismo alokairua baino erakargarriagoa izateko neurriak ezarri.
 - ☐ Jabeei bermeak eskaini, esaterako, ordainketa-, kalte-, okupazio- eta etxegabetze-bermeak.
 - ☐ Jabe handiekin negoziatu (funtsekin, bankuekin, etabar) higiezin aktiboak alokairuan jartzea epe luzerako.
 - ☐ Babes sozialeko etxebizitzak sustatu landa guneeetan.
 - ☐ Higiezin-enpresak kontrolatu, ez ditzaten prezioak monopolizatu edo ez ditzaten fidantza neurrigabeak kobratu.
- Administrazioak etxebizitza hutsak merkaturatzeko esku hartu beharrez gero eraginkortzat jotzen diren neurriei dagokienez, ondorengo proposamenak jaso dira galdetegiaren bidez (gehien errepikatzen direnetatik gutxien errepikatzen direnetara antolatuta):
 - ☐ Jabeei bermeak eskaini, esaterako, ordainketa-, kalte-, okupazio- eta etxegabetze-bermeak
 - ☐ Egokitzapen/birgaitze obretarako laguntzak eskaini, bai alokairua baino lehen eta baita gero, egon daitezkeen kalteak
 - ☐ Etxebizitza ugari dituzten jabeen, putre-funtsen, etab.-en desjabetzea.
 - ☐ Etxebizitza hutsak erroldatu eta kontrolatu
 - ☐ Etxegabetzeen ondorio diren etxebizitza hutsak dituzten bankuei zuzendutako zigor-kanon bat ezarri.
 - ☐ Gehieneko turismo etxebizitza kopurua ezarri
 - ☐ Alokairua Administrazio Publikoak kudeatu eta kontrolatu
 - ☐ Etxebizitza berreskuratzeko konpromisoa jabeak hori behar izanez gero, epe egoki batean.
 - ☐ Pertsona fisiko edo juridiko batek duen etxebizitza huts kopuruaren araberako tasak ezarri (bankuak, inbertsio-funtsak).
 - ☐ Jabeei zuzendutako etxebizitzaren arazoei buruzko sentsibilizazio kanpainak antolatu.
 - ☐ Administrazio Publikoek pisu hutsak erosi, kolektibo behartsuentzat alokairuan jartzeko.

Ondoren, laburbilduta azaltzen dira inkestaren eraitza nagusiak:

- Babestutako etxebizitzaren alokairuari dagokionez, bereziki garrantzitsutzat jotzen dira biztanleriarentzat ondorengo gaiak (4tik 3,3eta 3,6ko batez besteko balorazioak dituzte):
 - ❑ Alokairurako diru-laguntzak konpentsazio gisa, etxebizitza publiko nahiko ez(3,6)
 - ❑ Alokairu eskuragarria sustatzeko politikak (3,6)
 - ❑ 2030erako alokairu eskaintza bikoiztu (3,3)
 - ❑ Etxebizitza librean erostea sustatu, babestutako alokairurako erabiltzeko (3,4)
 - ❑ Babestutako etxebizitzaren alokairua sustatu erostea sustatu beharrean (3,3)
 - ❑ Babestutako alokairua sustatu landa gunean (3,3)
- Etxebizitza sozialak kudeatzeko eta sustatzeko eragile arduradunei dagokienez, eragile sozialak izatea egokitzen jotzen da (4tik 3,1), betiere, ez bada gailentzen mota pribatuko eragileen babes argia (4tik 2,5).
- Alokairuaren prezioetan esku hartzeko orduan, egokitzen jotzen da, lehenbizi, gehieneko prezioen kontrola, eta ondoren, baita jabeen zuzendutako pizgarriak.
- Alokairuaren prezioan esku hartzeko inkestatuek proposatutako beste neurri batzuei dagokienez, 600 ekarpen gehigarritik gora jaso dira. Babes handiena jaso dutenek ondorengo uste dute:
 - Alokairuaren prezioan esku-hartzeko alokairu eskaintza handitu, horrela, alokairu pribatuek prezioa jaitsi dezaten.
 - Hainbat etxebizitza hutsen jabeen zergak ezarri.
 - Alokairuaren prezioa mugatu Adibidez: m2 eta eremuko gehieneko prezioa ezarri; eremuko batez besteko soldataren %x gehieneko prezioa, etabar.
- Administrazioak etxebizitza hutsetan esku hartuz gero eraginkortzat jotzen diren neurriei dagokienez, 300 ekarpen gehigarritik gora jaso dira. Babes handiena jaso dutenek ondorengo uste dute:
 - Jabeen bermeak eskaini, esaterako, ordainketa-, kalte-, okupazio- eta etxebizitzaren bermeak.
 - Egokitzapen/birgaitze obretarako laguntzak eskaini, bai alokairua baino lehen eta baita gero, egon daitezkeen kalteak konpontzeko.
 - Etxebizitza ugari dituzten jabeen, putre-funtzen, etab.-en desjabetzea.

- Etxebizitza hutsak birgaitzeko laguntza ekonomikoak ematea, ondoren alokairu eskuragarrian jartzeko, oso positibotzat jo da (4tik 3,3), eta baita Administrazioak ezarritako formula/alternatiba berriak etxebizitza lortzeko, adibidez: cohousing-a (modu kolaboratiboan bizitzeko biltzen diren pertsonen komunitatea), amankomunean zerbitzuak dituzten komunitateak (gimnasioa, garbitegia...). Azken horiek 4tik 3,1eko balorazioa jaso dute.

6 eranskina

2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruz
egindako inkestaren emaitzak




Etxebizitza birgaitzea (Etxebizitzaren bidez)




2021-2023 Etxebizitza Gida Planari buruzko inkestaren helburu nagusia EGPea gehitu beharreko alor nagusiei buruzko **euskal biztanleriaren iritzia** ezagutzea izan da.

Etxebizitza-birgaitzea bereziki gai garrantzitsua denez, uneoro irekia izan den parte hartze prozesua burutu da, etxebizitza-birgaitze laguntzen hartzaileei bidalitako online inkesta baten bidez.

Inkesta zabalik egon zen ekaineko lehenengo hamabostaldian. Epe horren ondoren, **biztanleriak betetako 23 galdetegi jaso dira** guztira.



Parte hartu duten pertsonen profila ondorengo da:







(Batez besteko balorazioa, 1etik 4ra bitarteko eskala batean)

**Zer neurritan zaude ados ADMINISTRAZIOAK HONAKO GAI
HAUEK BABESTEAREKIN?**



**(Batez besteko
balorazioa, 1etik
4ra bitarteko
eskala batean)**

**Epe ertainera ZER FINANTZA-TRESNA MOTA
iruditzen zaizu interesgarriena BIRGAITZEN
LAGUNTZEKO?**



**Ohiko etxebizitza birgaitzeko gastuak
kendu al dituzu PFEZren aitorpenean?**

- PFEZa kentzea ezinezkoa izatearen arrazoiari dagokionez, galdetegian azaldutako galdera irekiaren bidez (gehien errepikatzen denetik gutxien errepikatzen denera antolatuta) ondorengo adierazten da:
 - ☐ Ez da burutu ondorengo arrazoiengatik: diru-sarrera baxuak, ez izatea lehen etxebizitza edo ohiko etxebizitza lurralde historikotik kanpo dago.
 - ☐ Birgaitzea ez da orain arte egin
 - ☐ Ez dute etxebizitza propiorik
 - ☐ Ez zekiten kengarriak zirenik

- Etxebizitza birgaitzearekin lotutako jasotako gainontzeko ekarpenei dagokienez, galdetegian azaldutako galdera irekiaren bidez (gehien errepikatzen denetik gutxien errepikatzen denera antolatuta) ondorengoa adierazten da:
 - ☐ Hesi arkitektonikoak kendu eta eskuragarritasun obrak sustatu
 - ☐ Energia-eraginkortasuna bultzatu: inguratzaila termikoa, eguzki-panelak ezartzea, galdara ekologikoak, kondentsazioak kentzea, etabar.
 - ☐ Familia bakarreko etxebizitzak birgaitzea sustatu (adib.: baserriak, erortzeak dauden etxeak...), etxebizitza horien birgaitze kostua oso altua delako. Erortzeak dauden eraikuntza askok paisaia kaltetzen dute eta landa gunak jendeztatzea ekiditen dute.
 - ☐ Gailendutako beste gai batzuk (soilik pertsona batek):
 - ☐ Aholkularitza tekniko zerbitzu baten bidez babestu.
 - ☐ Eraikuntzak birgaitzea sustatu, eraikuntza kolektibo alternatibo bihurtzeko.
 - ☐ Etxebizitzaren solairu arteko bihurketarako laguntzak erraztu (ez bakarrik tokikoak)
 - ☐ Balkoiak handitzeko araua onartu
 - ☐ Laguntzak jasotzeko baldintza gisa, eraikinaren aldizkako mantentze eta kontrola eskatu
 - ☐ Finantzaketa publikoak birgaitze kostuaren araberako soldata/pentsio baxuen ondorioz.
 - ☐ Diru-laguntza zuzenak eta ez obra ordaindu eta gerokoak
 - ☐ Zerga-arintzea erraztu ez dagokionean diru-laguntza
 - ☐ Jendartean etxebizitzaren birgaitze aukerak ezagutzera emateko kanpainak burutu.

Ondoren, laburbilduta azaltzen dira inkestaren eraitza nagusiak:

- Birgaitzeko diru-laguntzak emateari dagokionez, eraikinen ikuskapen teknikoetan hautemandako beharrianekin lotutako birgaitze-lanak bereziki garrantzitsutzat jotzen dira (5etik 3,3), eta baita etxebizitza hutsak birgaitzea ondoren prezio eskuragarrian alokairuan jartzeko (5etik 3,2).
- Birgaize laguntzei dagokionez, bereziki garrantzitsutzat jotzen dira ondorengo gaiak (4tik 3,4eta 3,8ko batez besteko balorazioak dituzte):
 - Etxebizitzen eskuragarritasuna hobetzea sustatu (igogailuak, eskailerak, mugikortasuna errazteko barneko obrak...) (3,8)
 - Etxebizitzen energia-eraginkortasuna hobetzea bultzatu (argi-,gas- eta ur-kontsumo arduratsuaren) (3,6)
 - Etxebizitzen bizigarritasun eta erosotasun baldintzak hobetzea sustatu (3,6)
 - Energia-erkidegoak bultzatu (energia amankomunean kudeatzen duten komunitateak eta, are gehiago, iturri berriztagarrien bidez energia sortzen duten komunitateak)
- Epe ertaineko birgaitze finantza-laguntza tresna nagusiari dagokionez, adierazitako bi aukerak egokitzen jotzen dira (%70ak baino gehiagok aukera biak adierazi ditu). Dena den, itzultzen ez diren diru-laguntzak interesgarriagozat jo dira (8 ehuneko puntu gehiago), inbertsioaren zati handi bat finantzatzeko mailegu pribatuak lortzeko abal publikoarekin alderatuta..
- PFEZ aitortenean ohiko etxebizitza birgaitzeko gastuak kentzeari dagokionez, gehiengoak dio kendu direla. Arrazoiak galdetzean 10 ekarpen jaso dira. Arrazoirik azpimarratuenak ondorengo dira:
 - Ez da burutu ondorengo arrazoiengatik: diru-sarrera baxuak, ez izatea lehen etxebizitza edo ohiko etxebizitza lurralde historikotik kanpo dago..
 - Birgaitzea ez da orain arte egin.
 - Ez dute etxebizitza propioirik.
- Etxebizitza-birgaitzearekin lotutako beste ekarpen batzuei dagokienez, 20 ekarpen gehigarritik gora jaso dira. Babes handiena jaso dutenek ondorengoak uste dute:
 - Hesi arkitektonikoak kendu eta eskuragarritasun obrak sustatu.
 - Energia-eraginkortasuna bultzatu: inguratzaila termikoa, eguzki-panelak ezartzea, galdara ekologikoak, kondentsazioak kentzea, etabar.
 - Familia bakarreko etxebizitzak birgaitzea sustatu (adib.: baserriak, erortzeak dauden etxeak...)

7 eranskina

Gazteekin online bidez egindako tailerrean jasotako ekarpenen laburpena

Tailerrean parte hartu duten eragileak

Erakundea	Pertsona kopurua	Sexua
CCOO Gazteak	1	gizon
Ernai	1	emakumea
ECO/ACG	1	gizon
Bigite Elkarte	5	gizonak
EGK	2	emakumeak
<i>Elkarteratu gabeko gaztea</i>	1	emakumea
Etxebizitza Saila (EJ-GV)	-	gizon
GUZTIRA	11	4 emakume y 7 gizon

Abiapuntuko egoera

- ❑ Tailerrean parte hartu duten gazteek hautemandako eta partekatutako zailtasun nagusia **enpleguaren kalitate eskasa** da, prekarietateari dagokionez (soldatak, behin-behinekotasuna, etab.). Egonkortasuna eta lasaitasun ekonomikoa bermatuko dituen enplegurik gabe, oso zaila da Euskadin emantzipatzeko erabakia hartzea. Are zailagoa da erosketa-erregimeneko etxebizitza bat merkatu librean eskuratzea aukeratzen bada. Ildo horretan, egiaztatu da **lotura estua dagoela enpleguaren eta etxebizitzaren artean**, eta komenigarria dela bi gaiak batera lantzea etorkizuneko estrategietan.
- ❑ **Migratzaileen kasuan**, alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun gehigarria aipatzen da, **jabeen errezeloak** direla eta. Gainera, pertsona horiek etxebizitza bat eskuratzea are gehiago zailtzen duten **traba burokratikoak eta administratiboak** daudela adierazi da. Laguntza-programa jakin batzuk eskuratzeko aukera izan aurretik, hainbat eskakizun daude (adibidez, kontu korronte baten titularra izatea), eta horiek, etxebizitzarako sarbidea erraztu beharrean, oinarritzko baldintza batzuk betetzea oztopatu egiten dute. Egoera hori bereziki larria da migratzaile **adingabeek Administrazioaren tutoretzapean egoteari uzten diotenean** 18 urte betetzean, eta jasotako laguntzak oinarritzko beharrak asetzeko nahikoak ez direnean, enplegua lortzeko prestakuntza jasotzen ez dutenean, etabar.
- ❑ Etxebizitza publikoak **alokairu-erregimenean esleitzeko prozesuetan gazteei % 40ko kupoa gordetzearekin ados** daudela adierazi da. Etxebizitza bat eskuratzeko baldintza txarrenak (aurreko paragrafoetan aipatutako larrienak) dituen kolektiboetako bat dela ulertzen da.

Alokairua vs. erosketa

- ❑ Tailerrean parte hartu duten gazteek ados daude Eusko Jaurlaritzak bere **etxebizitza-parke publikoaren esleipenean alokairu-erregimenaren alde egitearekin** (eta erosketa-erregimeneko etxebizitzak ez esleitzearekin). Ulertzen da diru publikoarekin ez direla finantzatu behar esku pribatuetan/partikularretan eroriko diren etxebizitzak.
- ❑ Eusko Jaurlaritzak **etxebizitza libre erabiliak alokairu babestu gisa esleitzeko erostea sustatzeko** proposamenaren aurrean, erakunde eta pertsona parte-hartzaileak alde agertu dira. Adierazi dute oso garrantzitsua dela etxebizitza horiek arrazoizko gehieneko prezioetan erostea (BOE), jabeek ekimen hori negozioa egiteko eta etekin ekonomikoa ateratzeko modu gisa ikus ez dezaten.
- ❑ Aipatutako lehentasunetako bat da **Administrazioak irtenbide bat bilatu behar diola alokairuen prezioa mugatzeari/arautzeari**. Aipatu da zenbait eremu eta udalerritan alokairuen errentak neurritz kanpokoak direla, pertsona gutxik eskura ditzaketenak. Ildo horretan, **prezioak ez ezik, alokairu-kontratu askotan ezartzen diren baldintzak ere arautzeko beharra aipatzen da**, adibidez, fidantza handiak aurkezteko derrigortasuna. Kontuan hartu beharreko alderdi bat da, gazte askok ia ez baitute aurreztutako kopuru horiei aurre egin ahal izateko adina aurrezpen.
- ❑ **Gaztelagun** programari dagokionez, **ekimen egokia dela uste da, baina irizpide batzuk berrikusi egin behar dira**. Hobetu beharreko alderdien artean, erakunde eta pertsona parte-hartzaileek honako hau proposatzen dute: onuradunen adina luzatzea, baldintza ekonomikoak leuntzea, laguntzaren zenbatekoa handitzea eta laguntzaren gehieneko iraupena luzatzea edo ezabatzea (gaur egun 3 urte). Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak adierazi du borondatea eta konpromisoa duela eskaerei erantzuteko eta aurrerago bileraren bat egiteko, gaia berariaz aztertzeko.

Etxebizitza-formula alternatiboak

- ❑ Parte-hartzaileak **etxebizitza eskuratzeko formula alternatibo batzuk bultzatzen dituzten programak sustatzearen aldekoak dira**, hala nola "cohousing"-a edo zerbitzu komunak dituzten komunitateak. Oso aukera interesgarritzat jotzen dira beste era batera bizitzea erabakitzen duten pertsonentzat, **garrantzi handia emanez soziabilitateari** eta, jakina, era guztietako zerbitzuak eskura izanik. Era berean, mota horretako alternatibek **etxebizitza eredu tradizionalak "apurtzen" eta egungo gizartearen dauden familia mota gehienak hartzen laguntzen dutela** adierazi dute. Usurbilen eta Areatzan kasu arrakastatsuak daudela aipatzen da.
- ❑ Bestalde, **belaunaldien arteko lankidetza-etxebizitzaren proiektuak oso aukera aberasgarritzat jotzen dira** maila pertsonalean (bai adinekoentzat, bai gazteentzat), nahiz eta funtsezkotzat jotzen duten horrelako **proiektuak konfiantzan oinarritzea**. Pertsonak elkar ezagutzen badute eta proiektua elkarrekin sortzen badute, proiektuek arrakasta izango dute. Ildo horretan, harrera ona izan duten proiektuak aipatu dira, hala nola "Orereta" eta "Txirikorda".

Beste ekarpen batzuk

- ❑ **Etxebizitza hutsen mobilizazioa bilatu** behar dela adierazten da, berehala merkatuan jartzea bultzatuko duten jardueren bidez (mobilizazioa sustatuko duten programak/ekimenak, etxebizitza horien jabeak zigortzea, etab.). Ildo horretan, parte hartu duten erakundeetako batek adierazi du, batzuetan, gazteek etxebizitzak eta eraikinak "okupatzen" dituztela erabilera soziokulturalerako, baita "irtenbide bakar" gisa ere, alokairuen prezioa jasatea ezinezkoa baita. Ildo horretan, administrazio publikoek "okupa mugimendua" ez kriminalizatzeko eskatzen da.
- ❑ Lehentasun gisa aipatzen da Sailari lotutako **zerbitzuak eta erakundeak ezagutzera ematearen garrantzia**, hala nola Alokabide eta Etxebide, bai eta Gaztelagun programa gehiago zabaltzearen garrantzia ere.

8 eranskina

Adinekoekin online bidez egindako tailerrean jasotako ekarpenen
laburpena

Tailerrean parte hartu duten eragileak

Erakundea	Pertsona kopurua	Sexua
Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea	1	gizona
Las Cuatro Torres – Arabako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea	1	gizona
Bizkaiako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea	1	gizona
Untzaga Zentro Soziala	2	Emakume 1 eta gizon 1
Zeraingo Adinekoen Elkartea	1	emakumea
Euskofederpen	3	Emakume 2 eta gizon 1
Etxebizitza Saila (EJ-GV)	-	Gizona
Etxebizitzaren Behatokia	-	Emakumea
GUZTIRA	9	4 emakume eta 5 gizon

Alokairua vs. eresketa

- ❑ Eusko Jaurlaritzak bere **etxebizitza-parke publikoaren esleipenean alokairu-erregimenaren aldeko apustua egitearekin oso ados** dagoela adierazi daudela adierazi dute parte-hartzaileek, nahiz eta **neurri hori gazteengana bideratuagoa** dagoen, eta ez hainbeste adinekoengana, gehienak jada etxebizitzaren baten jabe baitira. Gainera, kulturagatik, adineko pertsona gehienek ez dute planteatzen alokairuko etxebizitza batean bizitzea, eta jabetzaren ideia oso errotuta dago.
- ❑ Interesgarritzat jotzen da Eusko Jaurlaritzak **etxebizitza libre erabiliak alokairu babestu gisa esleitzeko erostea sustatzea**, are gehiago etxebizitza horiek adinekoen jabetzakoak direnean, hainbat arrazoiengatik (irisgarritasun-arazoak, gehiago soziabilizatzeko gogoia eta komunitatean bizitzea) beren bizilekua aldatzeko aukera izan nahi badute.
- ❑ Parte-hartzaileak **ados daude adinekoentzako zuzkidura-bizitokiak eskuratzeko aukera ematearekin**, eta, horren truke, pertsona horiek Eusko Jaurlaritzari lagatzen diote beren etxebizitza, alokairu babestuan jar ditzan. Uste da oso aukera interesgarria izan daitekeela, alde batetik, beste bizimodu bat bilatzen duten adinekoen beharrak asetzeko, eta, bestetik, alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzeko.
- ❑ **Administrazioak alokairuen prezioa mugatu eta arautzeko** jardun ahal izatearen inguruan, parte hartu duten adineko pertsonak **begi onez ikusten dute**, nahiz eta neurri horrek gazteengan eragin handiagoa izango lukeen. Ildo horretan, adierazi dute ez dela normala hileko errenta askok hipoteka baten truke ordaindu beharreko hileko zenbatekoa bikoiztea.

Etxebizitzak birgaitzea

- ❑ Erabateko adostasuna dago **etxebizitzak birgaitzeko laguntzak hurrengo Gida Planean jorratu beharreko lehentasunen artean** egon behar duela. Ildo horretatik egiten diren politikek **eragin handia izango dute, batez ere, adinekoengan**; izan ere, horietako asko hainbat hamarkadatarako etxebizitzetan bizi dira, eta birgaitzea eskatzen dute.
- ❑ Parte-hartzaileek adierazi dute birgaikuntzaren esparruko **laguntzak etxebizitzen kanpoko irisgarritasuna eta barne-egokitzapena hobetzera bideratu** behar direla (zero kotan dauden igogailuak, oztopo arkitektonikoak kentzea, etab.).
- ❑ **Egoera bereziki kritikoa da landa-inguruneetan**; izan ere, eraikin eta baserrietan ez ezik, etxebizitza horietarako sarbidean ere gabeziak daude. Horrela, landa-inguruneetan bizi diren pertsonen laguntza handiagoa ematea eskatzen da, laguntzak esleitzerakoan.
- ❑ Dauden **laguntzak** (eta etorkizunekoak) **jakinarazi eta zabaltzeari dagokionez**, funtsezkotzat jotzen da **ahalegin handiagoa egitea**, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen. Laguntza horiek jaso ditzaketen pertsona asko adinekoak direnez, pertsona horien errealitatea kontuan hartuta pentsatu eta dibulgazioa egitea eskatzen da, eta **aurrez aurreko hedabideetara jotzea** (HEGen bidez, erretiratuen elkarte bidez) **eta ez-digitaletara** (prentsa idatzia, irratia, etab.). Alde horretatik, parte hartu duten elkarteek erabateko prestutasuna dute informazioa adinekoei ere iristen laguntzeko.
- ❑ Era berean, beharrezkotzat jotzen da **dibertsitate funtzional mota guztiak kontuan hartzea birgaitzeko laguntzen helburua planteatzerakoan**. Ez da ahaztu behar zentzumen-desgaitasuna duten pertsona askok (itsuak, gorrak, gorrak) beren etxebizitzak beren beharretara egokitu behar dituztela. Ikuspegi zabalagoa eskatzen da etxebizitza egokituen sailkapenean (legez exijitzea etxebizitza eraiki berrietan).

Etxebizitza eskuratzeko formula alternatiboak

- ❑ Parte-hartzaileek uste dute etxebizitza eskuratzeko formula alternatiboen ekimenak, hala nola "cohousing" a edo zerbitzu komunak dituzten komunitateak, aukera ona izan daitezkeela horrela bizitzea erabakitzen duten pertsonentzat. Nabarmendu dutenez, adinekoak formula horietan parte hartzera animatzeko, espazio komunak eta bizikidetzakoak ez ezik, beste zerbitzu eta gizarte-laguntza batzuk ere egon beharko lirateke. Hala ere, **ez dute uste pertsona askok horrelako etxebizitzak aukeratzeko dituztenik**, eta gehiago lotzen zaie Europa iparraldeko gizartei. Era berean, beharrezkotzat jotzen da dagoeneko sortzen ari diren esperientzia pilotuak aztertzea (batez ere udalerrri txikietan), Planean lehentasuna izan behar duen jakiteko; izan ere, uste dute horrelako ekimenak ezartzeko, pentsamoldea eta harremanak aldatu behar direla.
- ❑ Bestalde, **belaunaldien arteko lankidetzaren proiektuak oso onuragarritzat jotzen dira adinekoentzat (baita gazteentzat ere)**. Ildo horretan, Tolosan, Gasteizen eta Donostian izandako esperientzia arrakastatsuak aipatzen dira.

Beste ekarpen batzuk

- ❑ Adinekoen etxe askotan dagoen **pobrezia energetikoa ez dela alde batera utzi behar** adierazi da. Saihestu egin behar da etxe batek bere diru-sarreraren zati handi bat etxebizitzaren faktura energetikoa ordaintzeko erabili behar izatea.

9 eranskina

Elkartean-ekin egindako bileraren emaitzen laburpena - Euskal Autonomia
Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio
Koordinatzailea

Bilerako eragile partaideak

Antolaketa	Pertsona kopurua	Sexua:
Fekoor Bizkaia	1	Emakumea
Elkartu - Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea	2	Emakume 1 eta gizonezko 1
Eginaren eginez - Arabako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte	1	Gizonezkoa
Ikertalde	1	Gizonezkoa
Etxebizitza Saila (EJ-GV)	-	Gizonezkoa
Euskal Etxebizitza Behatokia	-	Emakumea
GUZTIRA	5	2 emakume eta 3 gizonezko

Ondoren, ELKARTEANen bidez (Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea) **antolatutako bileran** egindako ekarpen nagusiak azaltzen dira. Horren helburu nagusia **ELKARTEANek proposatutako neurriak elkarbanatu eta garatzeko**, bizitza independentea sustatzeko eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak Etxebizitza Plan Zuzentzaile berrian bermatzeko.

Jasotako ekarpen nagusiak

- ☐ Dibertsitate funtzionala duten pertsonekin **paradigma aldaketa** bat egin dela gailentzen da: **laguntza-eredu batetik bizitza independente eredu batera** aldatuz, eta eredu berri horretan hainbat alor landu behar dira: gizarte-, enplegu- hezkuntza- eta baita etxebizitza-politikak, dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-proiektu independenteak izan ditzaten.
- ☐ Ondorioz, orokorrean, Plan Zuzentzailean **dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-independientearen bermatzeko etxebizitzaren garrantzia** gailentzen da.

Etxebizitzaren eskuragarritasunari dagokionez

- ☐ Etxebizitza eskuratzea **ezinbestekotzat jotzen da bizitza independentea bermatzeko.**
- ☐ Ekintza positiboko neurriak gehitzea proposatzen da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen etxebizitza eskuragarri izatea bultzatzeko. Bereziki, etxebizitza, etxebizitza sozial eta babes ofizialeko etxebizitza programetan.
- ☐ Dibertsitate funtzionala duten pertsonen etxebizitza-eskuragarritasuna errazteko proposatutako beste neurri batzuk ondorengo hauek dira:
 - ☐ Kolektiboaren emantzipazioa sustatzeko programak bultzatu.
 - ☐ Zuzkidura-bizitokiak baliatu (gaur egun gazteei edo nagusiei bideratuta daude).
 - ☐ Bizi independenterako trantsizioa errazteko baliabide motaren bat sortzeko aukera mahaigaineratu.

Ezinbestekotzat jotzen da

- ☐ Zentzu horretan, **etxebizitza eta eraikinak egokitzeko** beharra azpimarratzen da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi independentea bermatzeko ondorengo eginez:
 - ☐ Etxebizitza eskaintza orokorrean egokitzea sustatu, edonork izan dezakeelako dibertsitate funtzionala bizitzako momenturen batean.
 - ☐ Alokairua sustatzeko programa publikoetan, etxebizitza eskuragarriak eta egokituak daudela bermatu.
 - ☐ Etxebizitza hutseko alokairuaren programa publikoetan (Bizigune) etxebizitza eskuragarriak daudela bermatu.
- ☐ **Eskuragarritasunari** dagokionez, ondorengo alorrak gailentzen dira:
 - ☐ Zein etxebizitza edota eraikin dauden egokituta edota eskuragarriak diren jakitearen garrantzia. Bereziki alokairu merkatuaren jarraipen-sistemetan, mota horretako etxebizitzari buruzko informazioa eman, eskuragarria den ala ez dioena (ez bakarrik igogailua duen edo ez, baizik eta higiezinaren benetako eskuragarritasunari buruzko informazioa), barnealdea egokituta duen ala ez adierazten duena (komuna, balkoien irisgarritasuna, sukaldea, etab.).
 - ☐ Etxebizitzari dagozkion txosten eta ikerketa guztietan eskuragarritasuna gehitu.

Etxebizitza egokitzeko laguntzak

- ☐ Etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko diru-laguntzak emateko eta eskatzeko epeak eta izapideak erraztea eta gutxitzea, eta dauden diru-laguntzen komunikazioa hobetzea beharrezkotzat jotzen da.
- ☐ Etxebizitza egokitzeko beharrezkoak diren laguntzak lortzeko laguntza eta ezagutzera emateko **elkarteek egiten duten lana** gailentzen da. Zentzu horretan, ELKARTEAN kolektiboari zuzendutako bizi-independienteari buruzko gida bat garatzen ari da eta gida horretan etxebizitzari buruzko informazioa duen berriazko atal bat dago, eskuragarritasuna, birgaitzea, etabar errazteko.